

ESAKUN EZ EGOKIAK SINISTEDUNENTZAT

Ba-dagoz gure izkuntza eder Euskerean geure kristiñauen sinismenerako esaldi egokiezak.

Sarriaskotan gure arteko senide, lagun edota edozein norki pertsona il izan dana gogoratzen dogunean esaten dogu begiramen gitxiz: "Urlia zana".

Esakun onek gu fededunon belarrietan ondo ots egin leike?

Zer ba, munduan izan zan gure ezagun ori ez da orain?

Fedeak diñosku baietz. Il ondorentik gorpu obiratua usteldu egingo da ta auts biurtu, bere espiritu-gogo-arimea bizi da Kristo-Jainkoagaz, Berbizkunde Egun Orokorrean, Gorputz ta Arimea jaio zan lez, bat eginda izateko.

Orregaitik ez erabili esaera: "urlia zana". Zorionez, bai Euskaldunen artean erabilten dogu be il dan gure ezagun baten gomutako, lez "Goian Bego" Bai ederto dagoa-la esanda!

ATSEDEN BEGI BAKEAN!

Otoi onoko au ildakoen Mezatan Eleizeak erabilten dauan azken-esaldi bat lez dago. Zegaitik? Sarkaldeko oraingo andra-gizonak diñoelako "Zerua atsedeen bat baiño ez bada (lozorroa), nekaturik bizitea gurago dot". Orain zortzi edo amar urte direala ni arpidetuta nengoan Ipar Amerika'ko aldizkari katoliku batera Pasiotarrek zuzendari ebazana "Sign". "Atsedeen begi bakean"-iñoan aldizkari orrek-ondo etorren lenengoko gizaldidietan Kristiñauen artean. Ain mindurik, ain nekaturik, beti igeska arerioen jarraiketa, erasoetarik, arnasa estuz antzera, Jainko Aitari eskatu egiten eutsoen betiko atsedeen bat. Baiña gaur andra-gizonek ain eroso ta nasai diran ezkerro, zoriona ipinten dabe, ez lozorroan, euren almen guztiak nasai erabiltean baiño. Eurentzat otoiitik onena izango litzake: "betiko zoriontasunaren argiak argi egin begio" Edo labur-rako: "betiko zoriona beretzat (eurentzat).

EGILUZE'K



ERLIAK ETA ZORRIAK

¡Zelako jai ederra
gaur ba da egun andia!
Zubek lan egin zenduben
beti gogor ¿ezta, aitita?
Ara ba, ¡gaur eltzen dira
zubentzako egaliak!
Alde guztietatik
dagoz ain beste ikurriñak...
¡Geure erria, benetan abertzalia!

Bai illoba, ikusten dodaz,
ori ba da atsegiña...
Baña, zuk ba dakizu
erle ta zorrien artian
beti dagon alde andia?
Erliak egiten dabe, lorakaz
geutzako ezta.
Geure odola zurrututa
biziten dira zorriak.

Ara ba, egun onetan,
¡Ai, gure Euzkadi maitia!
Euzko-Jaurlaritza'k daukoz
erle gitxi, ta beti ugari zorriak.

UTARSUS

SUAREN ETA GATZAREN ARDURADUN

Gure maitasunezko begizatze ondorioz
suaren, gatzaren arduradun egin ziñan;
etxeke andra, buru, alkarrezko bat-batan,
orrek lekarken arazo, neke, pozkarioz.

Bateratuak, biok diardugu bai, ekintzan,
gogoz besteratsu gauzak iñoiz egiñarren
guk, egunean eguneangozko alkargintzan,
biotzez diardugu bidea ibilgarriagotzen.

Egun bat Udabarri eta, urrengoa, Negu,
(Uda naiz Udazken), loturazko egutaroz
alkarrez dagigu buruz buru, eskuz esku.

Buruz buru ta, eskuz esku, egunen zoriz
banatuko gaitun eriotzaraño, betikoz,
alkarri lagunduz egungo neke ta, ogiz.

MUNIATEGI-TAR SABIN

